

Ikasturte barriari begira

Oporrak atzera gelditu ziran. Eskola eta ikastetxe inguruetan barriro be ume zaratak eta txilioak. Iru urtekin leenengoz eskolara joan diran umeen negar malko andiak txikiagotzen eta leortzen doaz, laguntzxo barriak egin eta beste asko ezagutzen doazen ainean. Etxeetan bakea, amak ez dau beintzat umeok etxera noiz botako ete deuten bildurrez egon bearrik. Maisu eta endereñoen eskuetan dagoz etorkizuna diran gazte-
txoak.

Eskoleak eragin andia dau umearengan. «Zer ikusi eta entzun, axe ikasi», dino euskal esakera zaarrak. Eta ikusi, ez dakit zer andirik ikusiko daben, baina entzun, bai, asko entzungo dabe. Ordu asko sartzen ditu umeak eskolan, larregi be bai bearbada sarri askotan. Etxera doazenan, geldi egotez asperturik joango dira, zeozer egiteko asmotan. Baina txikienen arazoa, ainbestean gelditu leiteke. Nagusitxoago egiten diranean izaten dira kontuak.

Bein baino geigotan esana da, maisuen lana, eskolakoa, esanguratsua izan arren gurasoena indartsuagoa dala. Gurasoak euren artean alkaturik eta bidegile, eredu izan bear dabena. Etxean ikusten daben bizimoduak, etxeko zale-tasunak eta jokerak bardinbakoak dirala.

Amaikatxo ikaslek, eskolako orduak amaitu ondoren, otarteko bat artu eta beste eskola batera joan bearko dabe: solfeo, soinua jotzen ikastea, txistua, ingeles, dantzea... Beste ordu batzuk or sartu ondoren, eskolako lanak egitea gainera. Buruko uleetatik gora sarritan, atsedenerako astirik barik. Gurasoen aalegina andia da, eurak lortu ez ebena umeei emotea gura dabelako.

Baina umeari eziketan laguntzea, gazteak zer ardura bizi dauan, zer buruko

min darabilen jakitea, umeokin ordu batzuetan nasai berba egitea, ori bein baino geiagotan atzera izten dala begitantzzen jat. Ortik erneten dira eskolako frakasu asko.

Ikasturtearen inguruan abiatzen dira Parrokietako katekesiak eta umeari kristinau ezkuntza apur bat emon gurasoko lanak be. Eta oker egongo naz, baleiteke neure begitantzino utsa izatea aitatu gura dodan beste puntutxoa, baina ez ete da egia geienetan gauzak ikas-teari, kristinau formazinoari baino gei-ago begiratzen jakona? Amaikatxo bider, neure ustea auxe da, amaikatxo bider ume askok ez leukie Parrokiako katekesirako biderik be ikasiko Leenengo Jau-nartzerik egin bear ez balitz. Orrek bai arduratzen ditu gurasoak. Umearen Leenengo Juanartzearen inguruan sortzen dan jaialdiak, obeto esanda: Jantziak, bazkaria non egin, erregaluak... Olantxe gertatzen dira gero Leenengoa, zati ba-terako beintzat, azkena izatea eta antze-rakoak.

Guraso musikarien umeak, errez joko dabe musikara; guraso irakurri zaleen umeak errez jako dabe letrak ikasi ainean irakurtera. Fede bizitzaz ardura-turik bizi diran gurasoen umeak beti ekarriko dabe fedezkoetarako jokerea. Berba ederrak esateak baino indar gei-ago dauka bizikereak, ejenpluak. Eta auxe esan gura dot umeari eziketan la-gundu egin bear jakola dinodanean. Es-koleak ezin dau bete utsune au. Etxean landu bear dan landarea da. Gurasoak daukie emen berbea.

Ikasturteak gauza asko dakar buru-ra, baina bat gurasoak umeen ispilu eta bidegile izatea da. Eta badago or fraka-sotan, frakasotan...!